

7. BALIABIDEAK

Lehen aipatu dugun bezala, gure enpresak balio proposamen bat izango du, eta horrek baliabide batzuk behar ditu, enpresak aurrera egin dezan:

-Finantzia baliabideak: hainbat mailegu edo diru kopuru handi bat beharko dugu gure proiektuari hasiera bat emateko. Hala ere, diru hau oso ondo eta zehazki kontrolatu behar dugu, gero zorrak izan ez ditzagun. Diru hau subentzioen bitartez lortuko dugu, udalek enpresa txikiak lagundu nahi dituztelako.

-Giza baliabideak: Baliabide hau ez da izango beharrezkoa, pertsonalik ez dugu kontratatuko eta. Enpresa kontrolatuko duten bakarrak gu izango gara. Beraz, gu izango gara enpresaren giza baliabideak-Baliabide Intelektualak: Hauen barruan patentea izango da guretzat benetan beharrezkoa, inork ezin dezan gure app-aren kopia berdina bat egin.

-Baliabide Fisikoak: Enpresak bulego pribatu bat izango du, nondik enpresaren funtzionamendua kontrolatuko dugun. Ordenagailuak, aulkiak eta mahaiak egongo dira, gure diruarekin ordaindu beharko ditugunak edota gure propioak erabili. Era berean, gure esku egon beharko da argia erabili ahal izatea, gure proiektu guztia digitala baita.

Hala ere, baliabide hauek ez zaizkigu bere kabuz etorriko. Baliabide ekonomikoak bankutik maileguan hartuko dira. Baliabide intelektualak OEPM-ri (Oficina Española de Patentes y Marcas) esker izango dira, bertan erregistratu eta gure enpresaren ideia ere sartu dezakegu. Azkenik, baliabide fisikoak eskuratzeko ez dugu inoren laguntza beharko, gure material propioa erabiliko dugu eta.

